Familia estimatuak:

Udako eten berezi honen ostean, hemen gara berriro ere bueltan. Eskolako ateak ireki ditugu urteroko ilusioz, eta prest gara aurtengo erronka berriari aurre egiteko. Berriro ere eskolako langile, ikasle eta familiak elkarrekin izatea albiste ona da, bizi izan ditugunetatik abiatuz, ikasturtea denon artean eraikitzeko.

Uztailean COVID-19ari aurrea hartzeko Eskolako Kontingentzia Plana egina utzi genuen baina dakizuen bezala, geroztik egoera oso aldakorra izan da. Beraz, une hauetan aipatutako neurrien txostena egokitzen ari gara, betiere, Osasun Sailaren azken gomendioak kontutan hartuta.

Gauzak horrela, egoera honetan jabetzen gara etxe guztietan hainbat zalantza izango dituzuela eta mezu honekin batera, zuei laguntzeko asmoz, idatzita daukagun Planaren zenbait puntu aurreratu nahi dizkizuegu, eskolaren hasiera nolakoa izango den jakin dezazuen. Hala ere, datorren astean, gure plana Eusko Jaurlaritzaren arau berriekin egokitu ondoren, xehetasun gehiago izango dituzue, Kontingentzia Plan osoa bidaliko dizuegu eta.

Hauek dira 2020-2021 ikasturteari begira kontutan hartu beharreko arlo nagusiak:

IKASTURTE HASIERA

Ikasturte hasiera mailakatua izango da:

Irailak 7, astelehena: HH, LH eta DBH1, 2. mailako ikasleak hasiko dira. Datorren astean bidaliko dizuegu ordutegi zehatza.

Irailak 15, asteartea: DBH3 eta 4 mailetako ikasleak hasiko dira. Datorren astean bidaliko dizuegu ordutegi zehatza.

OSASUN ETA GARBITASUN-NEURRIAK

- 37 °C-tik gorako tenperatura, eztul lehorra, aire falta, eztarriko mina, hotzikarak, buruko mina, ahultasun orokorra, muskuluetako mina, beherakoa edo gonbitoak eta usaimena eta dastamena galtzea dituzten ikasleek, irakasleek eta gainerako langileek **EZINGO dute ikastetxera bertaratu.**

- **Musukoaren erabilpena**:

  Sarrera irteeretan:

  Ikasle guztiek eta **beraiekin datorren helduak musukoa jantzita** ekarri beharko dute etxetik eskolara sartzeko.

  Eskola orduetan:

  - Haur Hezkuntza: musukoa ez da derrigorrezkoa. Erabiliko da sarrera-irteeretan eta jolasaldietan.

  - 1. eta 2. mailako Lehen Hezkuntza: nahiz eta talde egonkorrak izan, musukoa une oro derrigorrezkoa izango da

  - Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arte: gela barruan 1,5 m-ko distantzia mantenduko dugun arren, musukoa une oro derrigorrezkoa izango da.

- Eskola eremuan, eskuen **garbiketa** zein ikasleek eta irakasleek erabilitako tresna eta espazioak etengabe garbitzea sustatu eta bermatuko da.

SARRERAK ETA IRTEERAK

- Eskolako sarrerak eta irteerak modu mailakatuan antolatu dira, sarbideetan pilaketarik egon ez dadin.
- Familioi etortzeko ordutegiaren eta sarrera-irteeren berri emango zaizue datorren astean.
- Sarrera bakoitzean irakasle arduradun bat egongo da talde bakoitzari harrera egiteko.
- Sartzeko eta ateratzeko bideak seinalatuko dira ikastetxeko eremu bakoitzean.
- Autonomia gutxien duten haurrak heldu bakar baten laguntzaz etorriko dira. **Heldu horren presentzia ahalik eta laburrena izatea beharrezkoa da** eta ahal den neurrian, haurra tutorearen ardurapean utzi ondoren, eskolatik irtetzea eskatuko da (lehen egunetan, egokitzapen garaian, kasuan kasu aztertuko dira etxeko helduaren beharra duten haurren egoera).

TALDEEN ANTOLAKETA

Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 2. mailara arte (hori barne), ikasle-talde egonkorrak izango dira (HHn gelaka eta LH1-2 mailaka). Ikasle hauek bizikidetza talde egonkorrak osatuko dituzte, sozializatu eta elkarrekin jolastu ahal izateko. Bizikidetza talde egonkor horiek ikastetxeko beste talde batzuekiko elkarreragina saihestuko dute, kontaktua

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBH4ra ez da ikasle-talde egonkorrik sortuko, baina pertsonen arteko 1.5 m-ko distantzia zainduko da, eta lehentasuna emango zaio beste talde batzuekiko elkarrekintzarik ezari.

ZERBITZUAK

- **GOIZEKO ZAINTZA:** (7:30-9:00): irailaren 21etik aurrera eskainiko da HH1etik LH3ra arte. Zerbitzu hau erabiltzeko maila eta talde desberdinak nahastuko direnez, une oro musukoa erabili beharko dute ikasleek. Denon segurtasuna bermatze aldera, behar-beharrezko duten familiek erabiltzea gomendatzen dugu.

- **JANGELA:** irailaren 21etik aurrea eskainiko da. Segurtasun neurriak zaintzeko zerbitzu hau ere behar beharrezkoa duten familiek erabiltzea eskatzen dugu.

- **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK** (Aloha, Kids and us, ingelesa, alemana, robotika, mekanografia, antzerkiak) COVID-19a dela eta, eskolaz kanpoko ekintza hauek ohi bezala emango direnik ezin dugu bermatu oraindik. Hala eta guztiz ere, antolakuntza martxan jartzeko, izena eman dezazuen eskatzen dizuegu.

- **ESKOLA KIROLA** COVID-19a dela eta, eskola kirola ere ohi bezala egingo denik ezin dugu bermatu oraindik. Hala eta guztiz ere, antolakuntza martxan jartzeko, izena eman dezazuen eskatzen dizuegu .

Izen emateak:

- Jangela eta goizeko zaintza: joan etorriak sahiesteko, izena emateko bideak hauek izango dira: **Alexia bidez** edo telefonoz 943/83 02 86. (irailaren 1etik 7ra arte)
- Eskolaz kanpoko ekintzak eta eskola kirola **Alexia bidez** (irailaren 1etik 11ra arte).

Denon konpromezuarekin neurri hauek guztiak eta datozenak aurrera eramateko moduan izango gara. Beraz, izan gaitezen eredu eta joka dezagun arduraz. Une hauetan, eman diezaiegun protagonismoa gure ikasleei eta ekin diezaiogun ikasturte berriari gogotsu eta denok bat eginda!

Zaindu dezagun elkar!

Zuzendaritza Taldea